

«Gure erantzukizuna da beste belaunaldi batzuetatik jaso duguna hurrengoei ematea»

Sagardoetxearen 15. urteurrenaren aurkezpenean izan zen atzo. Xabier Urdangarin alkateaz gain, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere izan ziren aurkezpenean. Asteburuan ospatuko dute, herritarrekin.

ASTIGARRAGA SAGARDOETXEA

Sagardoetxeak 15 urte bete berri ditu eta, atzo, urteurrenaren aurkezpenean izan zen Astigarragan. Bertan izan ziren Xabier Urdangarin alkatea eta Foru Aldundiko zein Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Urdangarinak hartu zuen lehenengo hitza, eta urte hauetan guztietan egindako lana goraiatu zuen. Gainera, instituzioekin izandako elkarlanari ere erreferentzia egin zion: «orain arte bidelagun izan ditugu eta aurrerantzean ere horrelaxe izatea nahi genuke». Gero, Bingen Zupriak, Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politikako Sailburuak, Sagardoetxearen garrantzia azpimarratu eta, besteak beste, koronabirusagatik sektoreak bizi izan duen egoera ere ekarri zuen gogora: «pandemia gogorra izan da guztiontzat, baina, bereziki, sagardogileentzat. Horregatik, gaurko agerraldia babes erakustaldi baten gisa ikustea nahiko nuke».

«Bide beretik jarraituko dugu»
Sagardoetxeak 15garren urteurrena du aurtengoa, baina Astigarragak 50 urte inguru daramatza sagardoaren kultura eta ondarea bultzatzen: Sagardo Egunaren ospakizuna, pieza etnografikoen bilketa, baserrien eta piezen argazkiak, eta abar. Horren haritik,



Xabier Urdangarin alkatea, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, atzoko aurkezpenean.

Xabier Urdangarinak haxe adierazi zuen: «herri gisa, hori guztia zaintzeko, gordetzeko eta erakusteko ardura dugu; are gehiago, beste belaunaldi batzuetatik jaso duguna hurrengoei erakusteko erantzukizuna dugu».

Bide horretan sortu zuten Sagardoetxea, 2006 urteko irailean. «Sagastia duen sagardoetxea da, eta hori da gure altxorrik prezia-tuena», esan zuen Urdangarinak. «Sagardoa egitea oso gauza sinplea da, baina mendez mende egin da hori Astigarragan, eta horrek ondare haundia ekarri du gurean. Zaindu eta erakutsi beharreko zerbait da hori. Horregatik, hori guztia ahalbidetzeko, hainbat ekimen antolatu ditugu urte hauetan, eta gure asmoa da bide beretik jarraitzea».

Ospakizuna, asteburuan

15 urte bete dituztela ospatzeko, hainbat jarduera izango dira asteburuan. Larunbaterako, eskaintza zabala egin dute: ipuin kontaketa, musika, tailerrak, eta beste asko. Igandean, sagarrak bilduko dituzte Sagardoetxe-ko sagastian eta, ondoren, Foru Plazara joan eta muztioa egingo dute. Amaitzeko, topa izango da bertaraturako guztiekin. K



Xabier Kerejetak azalpenak eman zituen museoan, aurkezpenean hasi aurretik.

EGITARAUA

LARAUNBATA

11:00 'Amona Tomaxa eta sagarra' ipuin kontaketa marraztua.

11:45 'Amona Tomaxa eta sagarra' liburuaren aurkezpenean.

11.00-14.00 Familientzako tailerrak: pop-up paperarekin, sagarrekin apaingarriak eta baratzeko lanak.

12:00 Sagardoetxearen Dokumentazio Zentroaren aurkezpene eta funts-emailei eskertza dantzariekin eta txistulariekin.

13:00 Musika emanaldia, Musika Eskolaren eskutik.

IGANDEA

11:00 Sagar biltzea, sagastian.

12:30 Sagar muztioaren elaborazioa, Foru Plazan. Ondoren, aipamen berezia baseritarrei, eta topa herrikoia sahar muztioarekin.